BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3781

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan etxeko langileak kontratatzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazioa finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia –2012ko uztailaren 16ko bileran Lanbideren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabaki bidez onartua– jakitera eman da.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 16ko bileran hartutako Erabaki bidez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan etxeko langileak kontratatzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazioa finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia jakitera ematea.

Adierazitako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan etxeko langileak kontratatzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazioa finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia jakitera ematea. Aipatutako deialdia 2012ko uztailaren 16ko bileran Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabaki bidez onartu zen, eta Ebazpen honen eranskin gisa bilduta dago.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiak ondorioak izango dituela Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Jakinarazi behar dugu Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiaren aurka (horren bitartez deialdia onartu da) berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dela organo horretan bertan Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian ebazpena argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 26a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUAN ETXEKO LANGILEAK KONTRATATZEN DITUZTEN PERTSONEN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOA FINANTZATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZEN DEIALDIA.

Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legean ezartzen da, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanik, Gizarte Segurantzako Etxeko Langileen Erregimen Berezia Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean txertatzea Etxeko Langileentzako Sistema Berezi bat sortuz.

Etxeko zerbitzurako pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian txertatzeak ekarriko du langile horien gizarte-babesa hobetzea, eta horren amaiera izango da Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko gainerako langileen eskubideekin eta betebeharrekin parekatzea.

Aurreko araudiarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu aipatutako arauan berrikuntza garrantzitsuak daudela, batez ere enplegatzaileak alta eman beharko baitie Gizarte Segurantzan etxeko langile gisa kontratatutako pertsonei, edozein izanik ere zerbitzuan ematen diren orduen kopurua, eta benetan jasotako lansarien arabera.

Bestalde, etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzen duen azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuak lan-harreman horren esparru berri bat ezarri du, etxekoen unitatean zerbitzuak ematen dituzten pertsonen lan-baldintzak duin bihurtzera bideratuta dagoena, langileen eskubide hobeak eta eskubide gehiago ezarriz, eta ahal den neurrian Langileen Estatutuan eta araudi osagarrian biltzen den arautegi orokorra aplikatuz; horretarako, alde batetik, egonkortasun handiagoa txertatuko da enpleguan eta bestetik, gardentasuna indartzeko mekanismoak, eta enplegua lortzeko garaian diskriminazioa debekatuko da eta lan-baldintzei dagokienez etxeko langileari informazioa ematearen alorrean enplegatzaileak dituen betebeharrak indartuz.

Testuinguru horretan, deialdi honetan arautzen diren laguntzei esker enplegu irregularra nagusitzen den sektorea normaliza dadin bultzatu nahi da, eta tradizionalki babesik ez duten pertsonen kolektibo zabalaren (gehienak emakumeak dira) eskubideak hobetu nahi dira.

Era berean, etxeko eremuan lanpostu berriak sortzen lagundu nahi da, eta horretarako, azaroaren 4ko 1620/2011 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek har daitezke barnean: edozein motatako etxeko zereginak, etxekoen unitate osoaren edo kide batzuen zuzendaritza edo zaintza, familiako kideen edo etxeko eremua edo familia-eremua osatzen duten pertsonen zaintza edo arreta, eta etxeko lan guztiak osatuz garatzen diren bestelako lanak, hala nola haurrak zaintzea, lorezaintza, ibilgailuak gidatzea eta antzeko beste batzuk.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 16an egindako bileran, onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan etxekoen unitateko langileak kontratatzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazioa finantzatzera bideratutako laguntzei buruzko deialdia, honako baldintza hauetan:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan etxeko zerbitzurako langileak kontratatzeagatik Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 2012ko ekitaldian eman ahal izango dituen laguntzak arautzea.

2. artikulua.– Finantzaziora bideratutako baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 2.000.000 izango dira guztira; zehazki, 1.200.000 euro 2012ko ordainketa-kredituari dagozkio, 800.000 euro, berriz, 2013ko konpromiso-kredituari.

Zenbateko hori igo ahal izango da dagokion aurrekontu-aldaketa onartzen bada, betiere indarreko legeriaren arabera. Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez emango da horren berri.

3. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jarduna.

1.– Deialdi honen babesean, diru-laguntza honen xede izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatutako etxeko zerbitzurako langileen kontratazioa, betiere pertsona horiek Etxeko Langileentzako Gizarte Segurantzaren Sistema Berezian txertatzen badituzte ondorengo artikuluan aurreikusiko diren baldintzak betetzen dituzten enplegatzaileek.

2.– Kontratazioak 2012ko urtarrilaren 1etik 2012ko urriaren 31ra bitarteko aldian egin beharko dira.

3.– Honako kasu hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko deialdi honen babesean:

a) Etxeko Langileen Erregimen Berezian lanaldi osorako alta emanda egon diren pertsonekin egindako kontratazioak, betiere pertsona horiek laguntzaren eskatzaile berarentzat edo etxebizitza berean bizi diren gainerako pertsonentzat lan egin badute 2011ko abuztuaren 2tik abenduaren 31ra bitarteko aldian.

b) Enplegatzailearekin eta etxebizitza berean bizi diren gainerako pertsonekin bigarren mailarainoko (hori ere barne) odolkidetasunezko edo kidetasunezko ahaidetasuna duten langileen kontratazioa.

c) Etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duen azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo dauden pertsonen kontratazioa.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren onuradunak.

1.– Beren etxebizitzetan zerbitzuak emateko enplegatuak kontratatzen dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean bizi diren eta erroldatuta dauden pertsona fisikoak izan daitezke diru-laguntzen onuradunak.

2.– Ezin izango dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izan zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortutako pertsona fisikoak, edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean daudenak; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako (otsailaren 18ko 4/2005) Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

3.– Bestalde, laguntza hauek onuradunei eman eta ordaindu ahal izateko, itzultzeko edo zigortzeko prozedura guztiak amaitu beharko dira, baldin eta prozedura horiek oraindik ere bideratzen ari badira, behin Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan abiatu ondoren.

5. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa Etxeko Langileen Gizarte Segurantzaren Sistema Berezira gertakizun arruntengatik kontratua indarrean dagoen bitartean, urtebeteko gehieneko mugarekin, kotizatzen den enpresa-kotizazioaren % 30 izango da.

Langileari egotz dakiokeen kausaren bat dela medio kontratua diruz lagundutako aldia amaitu aurretik iraungitzen bada, diru-laguntza ez da data horretan ordainduko, betiere onuradunak 15 eguneko epean beste pertsona bat hartzen badu haren ordez, deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen pertsona bat, alegia.

6. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Deialdi honetan arautzen diren laguntzak lortu nahi dituzten interesdunek I. eranskinean bildutako eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dute beren eskabidea. Eredu hori eskuragarri egongo da http://www.lanbide.net webgunean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Atxotegi 1, Vitoria-Gasteiz. PK: 01009) eta Lanbideren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da langileari Etxeko Langileentzako Gizarte Segurantzaren Sistema Berezian alta ematen zaion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta kasu bakar batean ere ezin izango da 2012ko azaroaren 15eko gehieneko data gainditu, betiere deialdiari esleitutako kredituak agortu ez badira, 7.2 artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

Deialdi hau EHAAn argitaratu baino lehen ematen bada alta Etxeko Langileentzako Gizarte Segurantzaren Sistema Berezian, epea hilabetekoa izango da argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diru-laguntza eskatzen duen pertsonaren NANaren/AIZren kopia.

b) Enplegatzailearen eta etxebizitza berean bizi diren gainerako pertsonen errolda-ziurtagiri eguneratua.

c) Lan-kontratuaren kopia, non argi eta garbi azalduko diren kontratuaren iraupena, itundutako lanaldia eta jaso beharreko soldata.

d) Enplegatuaren Gizarte Segurantzako alta.

e) Hirugarren Interesdunaren Datuen Altari buruzko Fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatuta.

f) Eskabidea aurkezten den data bitarte Gizarte Segurantzari ordaindutako kuoten ordainagiriak.

4.– Eskabideak eskatutako betekizunak betetzen ez baditu, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, hutsegitea edo akatsa zuzentzeko. Zuzendu ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu horrek.

7. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritza izango da, eta ebazteko eskumena duen organoa Lanbideren zuzendari nagusia.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak onartuko dira hurrenkera berean, eskabide horiek finantzatzera bideratutako funtsak agortu arte. Kreditua zabaltzen ez bada, aurrekontu-zuzkidura agortutakoan EHAAn emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendariaren Ebazpenaren bitartez.

3.– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak emango du eskabideak onartzeko, eta, hala badagokio, ukatzeko esanbidezko ebazpena. Diru-laguntza emateko Ebazpenean zenbatekoa eta ordaintzeko modua adieraziko dira.

4.– Ebazpenak emateko eta jakinarazteko, gehienez, sei hilabeteko epea izango da eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe hori amaitutakoan diru-laguntzaren eskabidea onetsitzat hartuko da, baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.

5.– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik.

6.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoak adierazita, baita emandako diru-laguntza aldatu behar izan zaien pertsonen zerrenda ere.

8. artikulua.– Laguntzak ordaintzeko modua.

1.– Emandako diru-laguntza bi ordainketatan ordainduko da, eta honela gauzatuko da:

– Lehenengo ordainketa, diruz lagundutako Gizarte Segurantzako kotizazioaren kostuaren % 60, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaren arabera kalkulatzen dena, diru-laguntza ematen denean, 2012ko ordainketa-kredituaren kontura.

– Gainerako % 40a, emandako diru-laguntzaren benetako kostua osatu arte, diruz lagundutako aldia amaitu ostean, eta kontratatutako pertsonak Gizarte Segurantzaren kuotak hilero ordaindu dituela egiaztatzen duten banku-frogagiriak interesdunak aurkeztu ondoren diruz lagundutako aldia amaitzen denetik zenbatzen hasita 2 hilabeteko epean, 2013ko konpromiso-kredituaren kontura.

9. artikulua.– Bateragarritasuna beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin.

1.– Deialdi honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira xede eta helburu berarekin Administrazio honek edo beste Administrazio batzuek edo erakunde publikoek eman litzaketen beste batzuekin, eta zehazki % 20ko murrizketarekin kotizazioetan, % 45eraino handitzen dena familia ugarientzat. Aipatutako murrizketa Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen xedapen iragankor bakarrean bilduta dago.

2.– Deialdi honen bidez araututako diru-laguntzen zenbatekoak (laguntza bakoitzarenak edo beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emaniko bestelako diru-laguntza edo

laguntzekin batera, eta xede bererako bestelako edozein diru-sarrera edo baliabide ere kontuan izanik) ezin izango du gainditu, inola ere, gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzarekiko enpresa-kotizazioaren kostua diruz lagundutako aldian. Kostu hori gaindituz gero, deialdi honen babesean diruz lagundu beharreko zenbatekoa murriztu egingo da.

10. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira pertsona onuradunen betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean frogatzea diru-laguntza emateko edo jasotzeko ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela.

– Diru-laguntza emateko kontuan izandako gorabehera objektibo edo subjektiboetan aldaketarik izanez gero, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri ematea.

– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiak gauzatzen dituen egiaztatze- eta kontrol-jardunen eraginpean jartzea.

– Jasotako diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzultzea, baldin eta, deialdi honen betekizunetako bat ez betetzeagatik, halakorik eskatzen badiote.

11. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta nolanahi ere, horrekin batera beste Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko baldintzak gordez. Horretarako, Lanbideren zuzendari nagusiak diru-laguntza ordaintzeko ebazpena emango du. Ebazpen horren bidez, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira, eta onuradunak itzuli egin beharko ditu soberakinak. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

12. artikulua.– Ez-betetzeak eta diru-laguntzak itzultzea.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak, edo Agindu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbideren zuzendari nagusiak Ebazpen bat emango du; horren bitartez, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako laguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura itzuli behar dituela, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkion lege-ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan aurreikusitakoa izango da erantzukizunen erregimena.

13. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzat jotako alegazioak aurkez ditzan.

b) Alegazioak jaso ondoren edota epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, Lanbideren zuzendari nagusiaren Ebazpenaz amaiera emango zaio itzultze-prozedurari. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela adieraziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura itzuli beharra deklaratuko da. Epe hori borondatezko aldiko epetzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzultzen ez bada, dagozkion izapideei hasiera emango zaie premia-mendu bidetik berreskuratzeko.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Kontrol-jardunak onartzeko betebehar orokor honen esparruan, onuraduna bereziki behartuta dago, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatuta, dagokion dokumentazioa aurkeztera, baita jarraipena egiteko eskatzen zaion dokumentazioa betetzera eta igortzera ere; dena dela, 10 eguneko epea izango du eskakizunei erantzuteko.

15. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat igorriko diote Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA
ETXEKO ZERBITZURAKO LANGILEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

ESKATZAILEAREN DATUAK			
Abizenak:		Jaiotze eguna:	
Izena:		NAN/AIZ:	
Jakinarazpenetarako helbidea	Kalea edo Plaza:	Zka:	Solairua:
Herria:	Probintzia:	Posta kodea:	
Harremanetarako telefonoa:	Posta elektronikoa:		

KONTRATATUTAKO PERTSONAREN DATUAK	
Abizenak:	Jaiotze eguna:
Izena:	NAN/AIZ:
GIZARTE SEGURANTZAKO DATUAK	
Alta eguna:	Kotizazio oinarria euro/hilabeteko:

ARDURAPEKO ADIERAZPENA

☐ Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrik ezartzeko prozeduraren baitan.

☐ Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor administratibo edo penalik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

☐ Ez dut sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekurik, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) dela bide.

☐ Ez dut odolkidetasunezko edo kidetasunezko ahaidetasunik, 2. Mailara artekoa barne, enplegatzailearekin edo harekin helbide berean bizi direnekin.

☐ Deialdian zehazten diren baldintzak betetzen ditut.

Dagokion laukia X batekin markatu [X]

ESKAEREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

– Eskatzailearen NAN/AIZ kopia.
– Eskatzailearen eta harekin bizi diren kideen erroldatze ziurtagiri eguneratua.
– Lan kontratuaren kopia, non argi azaldu behar den: jaso beharreko soldata, lanaldia eta kontratuaren iraupena.
– Hirugarren interesatuaren datuen alta fitxa, eskatzaileak sinatuta, eta dagokion banketxeak sinatuta eta zigilatuta.
– Eskaera aurkeztu bitartean, Gizarte Segurantzari ordaindutako kuoten ordain ziurtagiriak.

Baimena ematen dut, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Giza Segurantzako datuak, bai eta eskatutako diru-laguntza emateko beharrezkoak diren beste edozein datu egiaztatzeko. Baimena, edozein momentutan baliogabetu ahal izango da, baldin eta interesatuak hala eskatzen badu.

Era berean, kontratutako pertsonak, jan/andreak, baimena ematen du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Giza Segurantzako alta afiliazio datuak kontsultatu eta bere jabetzako datu-base informatizatuan gorde ditzan.

Hori dela eta, **ESKATZEN DUT**, bidezkoa den zenbatekoko diru-laguntza ematea.

Gasteizen, 2012ko _____(a)ren ____an

(Eskatzailearen firma)

Iz.:_____

(Kontratatutako pertsonaren firma)

Iz.:_____

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalen Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. Artikuluarekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, fitxategi automatizatu batean jasoko direla informatzen dizu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura jo beharko da, helbide honetara: Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.